

## GOBERNANTZA ERALDATZEN ARI DEN MUNDUAN

---



Irakaslea: Sergio García doktorea, Gobernantza Demokratikoaren Institutuko soziologoa eta ikertzaile elkartua.

Ikasleak: Jakin-nahia duten pertsona helduak, mundua hobetzen lagundu nahi dutenak eta gaur egun gertatzen ari denaren informazioa gainazaltetik eta partzialki ulertu nahi ez dutenak.

Data-ordutegia: 2015eko urtarrilaren 28a, osteguna, eta 29a, ostirala, 18:30etik 20:30era.

Hizkuntza: Gaztelania.

### EGITARUA

---

#### *Sarrera*

Badirudi gu bizi garen munduak ez duela gure aitona-amonek bizi zutenarekin zerikusirik. Hedabideen eta garraio-sistemen ondorioz, mundua trinkotu egin dela dirudi, eta, horrela, lehen halabeharrez berezita zeuden herriak eta kulturak harremanetan jarri dira, mugak aintzat hartzen ez dituzten merkataritza-mugimenduak eraginez. Garai batean politika, erlijioa eta klase sentimenduaren ardatzek gizartea eta nortasuna egituratzen bazituzten ere, ardatz horien inguruan jada ez dago garai bateko leialtasunik. Munduan gertatzen diren krisi anitzek zein erronka berriek orientazioa galarazi digute, eta herrialdeek ez dakite egoera horiei bakarka nola aurre egin. Azken batean, oso zaila da gutxi batzuek laguntzarik gabe gizartea gobernatzea.

Eta aldaketa sakon eta azkar horien testuinguruan, hain zuzen, gobernantza kontzeptua sortu da. Gobernu formalak eta politikariek ezin diete klima-aldaketari, migrazio masiboari, arazo ekonomikoari edo nazioarteko terrorismoari herritarren laguntzarik gabe aurre egin. Gobernantza kontzeptuak adierazten du gobernuak, gizarte zibila eta enpresen mundua elkarlanean aritu behar direla guztion ongizatea bilatzeko eta guztiok duintasunez bizi gaitzen.

## *Xedea*

Gure gizarteek azken hamarkadetan jasandako aldaketa esanguratsuenak aztertuko dira ikastaro honetan, eta, halaber, *gobernantza erara gobernatzea* deitutakoaren giltzarriak azalduko dira. Era horretara, bi helburu beteko dira: bata, parte-hartzaileek errealitate soziala aztertzeko eta irakurketa egiteko gaitasuna areagotzea, eta, bestea, gobernantza kontzeptuak berekin daraman proposamena ulertzea. Bestalde, lidergo mota desberdinak identifikatzea da asmoa, bai eta egungo gizartean mugitzeko beharrezkoa den lidergo motan sakontzea ere: guztion zerbitzura bideratutako lidergoa.

## - Lehen saioa:

1. Gobernantza kontzeptuaren sarrera-aurkezpen laburra.
2. Taldekako tailerra, gobernantzari lotuta egungo gizartean izandako aldaketa esanguratsuenak aztertze aldera.
3. Partekatzea.

## - Bigarren saioa:

1. Gobernantzaren arlo eta mailen azalpena, eta galdera irekiak.
2. Taldekako tailerra, gobernantzaren arlo nagusiak aztertze aldera: gobernu formala, gizarte zibila eta enpresen mundua.
3. Tailerra, egungo gizartearen gobernantzari lotutako erronka zehatzei buruz: boterea eta lidergoa.
4. Amaierako ondorioak.